

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gorpuak ur azalera nola



Iratxe Retolaza



33 ezkil

MIREN GORROTXATEGI

Agustín Zubikarai Saria, 2015
Elkar, 2016

33 ezkil estreinako nobelan, giro gris eta iluna eraiki du Miren Gorrotxategik. Ferminek giza-ki-burez bat topatzen du, baserriko lurretan ur-depositu bat jartzeko lanetan ari dela. Bure-zurraren auziak aspaldian izozturiko harreman zenbait biziberritzea ekarriko du: Fermin eta Karmen senar-emazteek Nestor semeari hots egingo diote; eta Nestor, bide batez, Berta neska-lagun ohiarekin jarriko da harremanetan, indusketa-lanetan jardun ohi duelako. Garizmendi baserrira garamatza gertaerak, baina, baita inguruetan kokaturiko beste espazio batzuetara ere: elizara, hilerrira eta Garizmend-Berrira (hau da, Ferminen anaia bikiaren etxera). Geografia horretan ezkila-hotsek eta hezur-dantzek zeharkaturiko giroa sortu du, eta lur-eremu ezegonkorra irudikatu: familia-sekretuak eta iruzurrak ditu lur azpiko ur, eta mesfidantza-giroa da nagusi. Burezuraren misterioa argitu ahala, isildutako eta lurperatutako iraganak gainez egingo du Garizmendi aldean, gorpuek ur azalera nola.

Neorruralismo beltzaren bidetik jotzen du nobelak, eta 80ko hamarkadan neorruralismora hurbildu ziren nobelak dakartza gogora: besteak beste, *Hamaseigarrenean aidanez* (1983) nobelako apustu-giroa eta *Kcappo* (1985) nobelako kutsu beltza. 33 ezkil nobelan, baserri-giroaren gogortasuna islatzeko, apustuaren kultura agertzeaz gain, beste ohitura batzuk ere irudikatu dira: oinordekotza eta maiorazkoa, norgehiagoka, inbidiak eta gorrotoak, baserriko bizimoduaren eta herriko bizimoduaren arteko talka, sinesmenak eta sorginkeriak, eta abar.

Nobela honetan irakurleak ez du bidea ikertzaileen eskutik egiten, nobela beltzean

ohikoa denez. Izan ere, bikote parek dabil auzia argitu nahian: maitale ohiak (Nestor eta Berta) eta ertzainak (Kortazar eta Ezpeleta); ez dago ikerketa-lerro bakar bat, beraz, eta narratzaileak gertaerak pertsonaia guztien ikuspegitik kontatzen dizkigu. Horretarako, bi narrazio-lerro eraiki dira: batean, auzia argitzeko prozesua da kontagai; bestean, aldiz, pertsonaien iraganera egiten du jauzi narrazioak. Intrigazko istorioek beti erronka handia dira: informazioaren dosifikatzean asmatu behar da, eta korapiloak modu sinesgarri batean askatu behar dira. Bi narrazio-lerro tartekatzeak, gainera, erronka areagotzen du. Bukaera aldera zenbait korapilo akaso azkarregi askatu dira, baina, oro har, ongi erantzun dio Miren Gorrotxategik erronkari, eta ederki asmatu du gertaeren puzzlea osatzen, jakin-minari eusten. Trebetasuna erakutsi du eszenak eraikitzen eta pertsonaien nortasuna apurka-apurka aletzen, baita misterio-giro hori eraikitzen ere. ■



Miren Gorrotxategiren lehen nobela da "33 ezkil". (Azpeitia, 1981).